

## IRAGARKIAK

### Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA

## 5157

*IRAGARKIA, 2024ko urriaren 3koa, Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendaria, zeinaren bidez argitara ematen den, lehia posible baten ondorioetarako, Arabako Gaubea udal-mugartean dagoen «Mendia 4» parke eolikorako alde zurreko administrazio-baimenaren eskaera.*

Maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretuak 4. artikuluan ezarritako ondorioetarako (115/2002 Dekretua, maiatzaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoetako energia eolikotik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen duena), «Mendia 4» parke eolikorako aurkeztutako alde zurreko administrazio-baimenaren eskaera iragartzen da:

- Eskatzailea: Mendia Wind, S.L. (IFK: B44776706).
- Tartean dauden udal-mugarteak: Gaubea (Araba).
- Haize-sorgailuen kopurua: 6.
- Instalatu den potentzia gordina: 43,2 MW.
- Ukitutako azaleraren poligonalaren koordenatu geografikoak:

Poligonalaren UTM koordenatuak (ETRS89 HUSO 30)		
Erpina	UTM x	UTM y
1	481.097	4.754.818
2	481.606	4.755.064
3	482.086	4.755.057
4	482.378	4.754.627
5	485.218	4.754.582
6	485.863	4.754.185
7	485.596	4.753.517
8	480.860	4.754.203

Hori guztia argitara ematen da, eta hogeit eguneko epea ematen da, iragarki hau 115/2002 Dekretuaren 4. artikuluan aipatzen diren aldizkarietan argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita, parke eoliko hori ezarri eta ustiatzeko interesa duten pertsona fisiko edo juridikoek aipatutako dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera lehia-eskabidea aurkeztu dezaten Arabako Industria Administrazioari Lurralde Ordezkaritzan, izapidetze elektronikoaren plataformaren bidez, GE-Y prozeduraren bidez, hemen: <https://www.euskadi.eus/prozedura/ge/web01-a2energi/eu>

2024ko azaroaren 12a, asteartea

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 3a.

Industria Administrazioari Arabako lurralde-ordezkaria ez dagoenez, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 68/2021 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren e) apartatuan ezarritakoa bete da.

Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendaria,  
ZIGOR URQUIAGA URQUIZA.